

BALIO PROPOSAMENA

- Zer behar edo arazo konpontzen du?

Donostian **ez dago diskoteka nahikorik**; horregatik, gure proposamena diskoteka berri bat egitea da. Gaur egungo gazteengan entretenimendua bultzatuko luke, eta gainera, euskal musika duen diskoteka bat izango denez, Donostian dauden hainbat arazo konpontzen lagunduko luke: euskararen erabilera sustatuko luke, gazteen artean euskal kultura indartuko litzateke, euskaraz abesten duten talde eta artistak sustatuko litzazke, eta, oro har, euskal identitatea eta musika zabalduko litzateke.

Horretaz gain, gazteak haien adin bereko jendearekin harremantzea eragingo luke eta lagun berriak egiteko gaitasuna landu dezakete.

Izena bizipenean oinarritzen da; hau da, pertsona eraikuntzan barruan sartzerakoan, flashback bat edukitzen ari dela sentituko du.

- Zerk bereizten zaitu eta, beraz, zergatik egongo da bezeroa zuri ordaintzeko prest?

Gure diskoteka ez da arrunta izango, prezio eskuragarri bat edukiko du 16 urtetik gorako gazteentzat, euskal musika sustatuko duen lekua izango da, eta gainera, Alde Zaharrean dagoenez erraza gehientzat eskuragarria izango da bertara joatea. Diseinu erakargarria izango du: bi pisu, hiru barra (alkohol gabekoak), eserleku ugariak, dantzatzeko pista...